



“Urte mordoxka bat egin dugu elkarlanean, eta oraindik ere harritzen nau Asierren esperimentatzeko gaitasunak. Etengabe jarduten du truku berriak sortzen eta klasikoen bertsioak egiten, edo istorioak idazten testuinguru umoretsu batean kokatzeko bere magia. Ez du onik izaten lanaren zoko-moko guztiak bere gustura eduki arte, magiari berari dagozkionak noski, baina kontuan hartuta betiere aktore baten bestelako betekizunak: ahotsaren, gorputzaren zein elementuen erabilera arretatsua; testu interpretazio naturala, gaztelaniaz zein euskaraz; eta eszenaratze zaindua. Lan egiteko modu sakon horrek kalitatea eta originaltasuna ematen dizkie bere ikuskizunei.”

Julia Marin Arteaga (Antzerki itzultzailea eta komunikazio tekniketari irakaslea)

“Behin baino gehiagotan izan dugu Asier Kidam gure herrian. Benetan ikaragarria egiteko gai dena. Ilusionista bat baldin bada ikuslearentzat efektu harrigarriak eta ezin argituzkoak sortzen dituena, Kidam ilusionista aparta izateaz gain giza ilusionista moduan definituko nuke, ikuslea bereganatzeko (izan heldua, gaztea zein haurra) duen ahalmena ezin argituzkoa baita. Elgetak gustura hartu izan du beti Asier!”

Janire Lazkano (Kultura zinegotzia Elgetako Udalean)

“Asier Kidamen ikuskizunek ez naute inoiz deepzionatzen. Inork ez bezala konbinatzen ditu magia eta dotorezia, ironia fina eta sentiberatasuna uztartzen dituen bere ukitu berezi horrekin.”

Begoña Bilbao (Antzerki zuzendaria)

“Bai ikasleak eta bai irakasleak gustura egon ginen. Ikuskizun atsegina, arina eta dibertigarria edozein ikuslerentzako.”

Alain Garalde (DBH4ko tutorea eta metodologia arduraduna Bera Kruz Ikastolan)

“Plazer bat izan da Asier Kidamekin lan egin ahal izatea. Gure kasuan, ekitaldiaren eduki eta formatura egokitu zuen bere ikuskizuna, eta publikoa berehala poltsikoratu zuen. Profesionaltasun eta enpatia handiko artista da.”

Ana Urkiza (Bankoa S.A.-ko Giza Baliabideko Zuzendaria)



## **SEKRETURIK EZ** (helduentzat)

### **Magia eta umore ikuskizun lotsagabea helduentzat.**

Asier Kidamek *Sekreturik ez* aurkezten digu, helduentzat propio sortu duen ikuskizun berria. Parte-hartzea, harridura eta umore fina ziurtaturik daude. Espektakulu honetan, magiaren joko klasiko erabat berrituak eta gaurdaino sekula ikusi ez ditugunak gozatuko ditugu aldi berean.

Jatorrizko ideia: Asier Kidam

Zuzendari artistikoa: Julia Marin

Ilusio diseinua: Luis Martioda eta Víctor Ruiz de Gordo

Jantziak: Garbiñe Goenaga eta María Jesús Ladrón de Guevara

Argazkiak: Carlos Arciniega eta Estibaliz Goenaga

Ordubete inguru irauten duen areto-ikuskizuna, publiko helduari zuzendua.

Kartelak, argazkiak, bideoak... ikusteko: [www.asierkidam.com](http://www.asierkidam.com)





## OHARRAK

- Asier Kidamek berak eramaten du behar den guztia: soinu-ekipoa, eszenografia...
- Eszenografiaren eta trukuen premia teknikoak direla eta, *Sekreturik ez*, leku itxietan baino ezin da egin: antzoki bat, frontoi bat, karpa itxi bat, erabilera anitzeko areto bat, gimnasio bat...
- Ikuskizunetan ez du erabiltzen animalia bizirik.

## NIRE BERRI

### Magia ikuskizun plastikoak eta originalak.



Gasteizen jaio nintzen, 1984. urtean. 7 urte nituela hasi nintzen magiarekin interesatzen, mago batek txanpon bat atera zidanean belarritik; hiru urte geroago debutatu nuen mago gisa. Geroztik, izugarri gozatu dut eszenatoki gainean egin ditudan 2.000tik gora emanaldietan.

Sarrera-proba egin ondoren, 17 urterekin, Espainiako Ilusionismo Elkartean sartu nintzen, eta 19rekin bizibide bihurtu nuen nire pasioa.

Eskarmentu handia daukat magia profesionalean. Espainiako telebista-kateetan lan egin dut, baita ETBn ere, eta antzokietan, kultur etxeetan, instituzioetan, hezkuntza-zentroetan...

Enpresa askoren zerbitzura jarri dut nire magia, haien produktuak eta zerbitzuak promozionatze aldera: Mercedes, BBK, ACB, Irizar, JB, Euskaltel, Ecogras... Costa Blancako Magic Hoteletan, mago iraunkor moduan jardun nuen bolada batean. Bestalde, 4 urte eman ditut aktore nagusi gisa *Magia teilatuan* eta *Magia lapurra* antzezlanetan. Eta aurkezle-lanak ere egin ditut hainbat ekitaldi publikotan.

e-maila: [asier@asierkidam.com](mailto:asier@asierkidam.com)

Telefonoa: 635 70 50 05